

Bere Maiestatearen Gabonetako mezua
2015 ko abenduak 24

Gabon,

Gabon-gau honetan, festa zoriontsuak eta urte berrirako onena opa nahi dizuet Erreginarekin eta gure alaba Leonor Printzesa eta Sofia Infantarekin batera.

Egun hauetan elkar ulertzeko izan ohi ditugun gogo horiek eta senidetasun espiritua hori gure artean egotea nahiko nuke, gure egunerokoan.

Gau honetan zuengana zuzendu nahi naiz Errege Jauregitik, hots, erregetzak Espainiaren handitasun eta duintasun guztia ahalik eta irmoen adierazi nahi duten estatu-ekitaldiak egiten diren lekutik.

Jauregi hau espainiar guztiena da, eta gure historiaren sinboloa; gure iragana hobeto ezagutu eta ulertu nahi duten herritar guztientzat ateak zabalik ditu. Sabaiepean eta hormetan, koadroetan eta tapizetan, hitz batez, ondare osoan, mendeetan zehar elkarrekin bizitako gure historia gordetzen da.

Eta historia hori, zalantzarik gabe, onartu eta gogorarazi egin behar dugu, gure oraina ulertu eta gure etorkizuna bideratu ahal izateko; horri esker, gainera, ongi eta gaizki egindakoak hobeto hautemango dira, historiak gure identitatea definitu eta adierazten baitu denboran zehar.

Bene-benetan uste dut gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa dela batzen gaituen guzti horretan biltzea guztiok. Beharrezkoa da urteetan zehar sakrifizio ugari eta handiekin, baita eskuzabaltasunarekin eta ahalegin izugarriarekin ere, elkarrekin eraiki dugunaren garrantzia nabarmentzea. Beharrezkoa da, halaber, garen guztia, espainiarrak egiten eta sentiarazten gaituena goratzea. Errege izendatzeko hitzaldian adierazi nuen Espainia konstituzionalean sentimendu eta sentsibilitate guztiek dutela lekua, espainiar sentitzeko modu guztiek, gure nazioa azaltzen duen komunitate politiko eta sozial bereko eta historiako, oraingo eta etorkizuneko errealitate bereko kide izan eta sentiarazteko moduek.

Nazio handi bat gara, garai eta mugaz haraindi igaro den kulturak definitzen duena, baita arteak eta literatura unibertsalak ere, guztion hizkuntzaz eta gure identitatea azaltzen duten Espainiako beste hizkuntzez blai aberastutakoak.

Pentsalari, zientifiko, sortzaile eta hainbat eta hainbat gizon eta emakumek eratu dute gure herrialdea, eta askok euren bizia ere truke eman dute.

Estatu garrantzitsua ere bada, partekatzen ditugun balio konstituzional berdinak eta ezarri ditugun eta batzen gaituzten elkarbizitza-arau berdinak oinarri dituen sendotasunarekin; gure naziotasun eta lurraldeen autogobernuean aniztasuna aintzatesten duen Estatua da; eta espainiar guztien borondate demokratikoa errespetatzen duena Legearen bidez, askatasunean bizitzeko oinarria bide.

Horregatik guztiagatik, arrazoi ugari ditugu —ditut— gau honetan adierazteko espainiar izatea eta sentiaraztea, Espainia maitatu, miretsi eta errespetatzea sentimendu sakona, emozio zintzoa eta bene-benetako harrotasuna dela.

Arrazoi horiekin —eta sentimendu hauek partekatuz—, gure historiari ohore egingo diogu, gure historiaren protagonistak garelako eta ondarea zabaltzeko erantzukizun garrantzitsua dugulako; eta gure kohesio naturala indartuko dugu, ezinbestekoa baita gure aurrerabide politikoa, zibikoa eta morala sustatzeko, gure elkarbizitza proiektua indartzeko. Izan ere, orain, Espainia eta espainiar guztien interes orokorra da, guztiaren gainetik, garrantzitsuena.

Pasa den abenduaren 20an izandako hauteskunde orokorren ostean, eta Diputatuen Kongresua eta Senatua berritzen diren aldi oro gertatzen den bezala, Konstituzioan gure herrialdea gobernatzeko ezartzen den prozesuari ekin zaio.

Gurea bezalako monarkia parlamentarioaren erregimen konstituzional eta demokratikoan, Gorte Nagusiek, subiranotasun nazionalaren arduradunak izaki, espainiar guztiei axola zaien eta espainiar guztiengan eragina duten gai guztiei buruz erabakitzeke ahalmena dute; indar politikoen artean eztabaidatu eta hitz egin ostean, bizi nazionalaren funtsezko gaiak landu eta erabakitzeke egoitza dira.

Hautetsontzietan adierazi den aniztasun politikoak sentsibilitate, ikuspegi eta aukera desberdinak marrazten ditu, zalantzarik gabe; horrek elkarrizketan, adostasunean eta konpromisoan oinarritzen den politikarekin aurre egitea dakar, herritarren arazoak konponduko dituzten erabaki onenak hartze aldera.

Espainian legealdi berri bat hasi da; ahaleginak, energia guztia eta gure instituzio demokratikoen gogo oro beharko dira azken hamarkadetan lortutako guztia bermatu eta tinkatzeko, aurrerabide politikoa gaur egungo Espainiako gizartearen errealitatera egokitzeko. Instituzio dinamikoak behar dira, arduradun diren eta ordezkatzan duten Espainiako herriaren pausoekin batera egiten dutenak aurrera, eta herritarrek bizitza publikorako eskatzen duten irmotasuna, zuzentasuna eta zintzotasuna daukatenak.

Gaur egungo Espainia ez da atzean geratu diren mendeetako bezalakoa, espainiar guztiek elkar ulertzeko izan duten benetako gogo eskuzabalari esker, adiskidetzeko eta gure artean ditugun desberdintasun historikoak gainditzeko espirituari esker eta indar politiko eta sozialek herritarrekiko duten konpromisoari esker, guztiaren gainetik egon behar diren Nazioko interes orokorrei esker. Hori da inoiz ahaztu ezin dugun historia berrienaren inguruko ikasgai garrantzitsua.

Ezin dugu ahaztu, ezta ere, Legea hausteak, ideia bat edo proiektu bat beste espainiarren gainetik inposatzeak gainbehera, pobretzea eta isolamendua eragin dutela gure historian zehar. Horra hor errepikatu behar ez dugun gure iraganeko akats bat.

Elkar ulertzea, elkarrekin bizitzea eta elkartasuna dira gure bidea orain, demokrazian eta askatasunean, eta ez dago beste irtenbiderik. Horregatik, Konstituzioak eskaintzen duen ordena errespetatzeak esan nahi du espainiar herri osoak onartu duen elkarbizitza demokratikoa defendatu egin behar dela; herritar guztien eskubideak eta askatasunak defendatu egin behar direla; baita gure kultura- eta lurralde-aniztasuna defendatu ere.

Hori dela eta, gau honetan Espainiaren batasunak eta jarraitutasunak dakarren lasaitasuna eta konfiantza islatu nahi dut mezu honetan; segurtasuna lehentasun duen mezua da hau, gure Konstituzioa babesten duena.

Itxaropen-mezua ere igorri nahiko nuke, gure espiritu konstituzional onenak daukan indarra pizten duen hausnarketa lasaia, iritzien kontraste zintzo eta leiala eta gure historiaren errealitateari zein espainiar guztien afektu eta interesen komunitate intimoari errespetua erakusten diona.

Bestetik, ekonomia hobetzea lehentasun bat da gu guztiontzat. Nire ustez, instituzio guztien ardura da herritarrek, familiek eta, batez ere, gazteenek galdu behar ez duten hori berreskura dezatela: etorkizunari aurre egiteko lasaitasuna eta egonkortasuna eta biharko eguneko bizitzako proiektu bat izateko ilusioa. Guztiok nahi dugu hazkunde ekonomiko iraunkorra. Enplegua —eta enplegu duina— sortzen jarraitzen lagunduko duen hazkundera, osasuna eta hezkuntza bezalako funtsezko zerbitzu publikoak indartuko dituen desberdintasunak murrizten lagunduko duena.

Europa, zalantzarik gabe, gure beste errealitate garrantzitsua da; bere horretan erronka izugarria ere bada. Guztiok sentitu dugu haserrea eta izua gure herrikideek bizia galdu duten atentatuen aurrean, Parisko eta munduko beste lekuetan izandako hilketen aurrean; elkarbizitzaren eredua zeharo erasotzen dute, baita oinarrizko giza balioak ere. Guztioi hunkitu gaitu gerratik alden du nahian gure mugetara iristen diren errefuxiatuen dramak, edo pobrezia jeta estu eta erasota dauden migratzaileenak.

Desafio horiei eta beste askori aurre egiteko, klima aldaketaren kontrako borroka kasu, Espainiaren ahotsa Europar Batasunean eta nazioarteko instituzioetan entzunarazi behar da, gure uste osoei eta gure nahitaezko interesei eragiten dien edozer tartean dagoenean. Izan ere, gaur egungo munduan nazio indartsuak behar dira, arduratsuak, batuak, solidarioak eta kideekin eta aliatuekin eta nazioarteko komunitatearekin dituzten konpromisoekiko leialak direnak.

Azkenik, agurtu baino lehen esan nahiko nuke, zalantzarik gabe, gaur egungo espainiarrok gure garaiko historia idazten jarraitu behar dugula, jakin badakigun eta behar bezala erakutsi izan dugun moduan.

Guztiok batera egin behar dugu —gizonak eta emakumeak, gazteak eta nagusiak, hemen jaioak eta kanpotik etorritakoak; guztiok batera bultza eginez, bidean inor utzi gabe.

Aurrera begiratu behar dugu, egungo munduan inork ez baitio itxaroten atzera begira dagoen horri. Liskarrak eta gorrotoak baztertu behar ditugu, eta norberekeria eskuzabaltasunagatik ordeztu, pesimismoa itxaropenagatik, babes-gabezia solidaritateagatik.

Izan dezagun konfiantza eta sinets dezagun gure herrialdearengan. Espainiak badaki eta ezbeharrari aurka egiten, badauka hobetzeko ahalmena eta askotan uste baino barne-indar gehiagorekin gainera. Espainiaren sendotasuna guregan dago; gure adorean, gure izaeran eta gure talentuan. Baita gure bizitzeko eta bizia ulertzeko moduan ere, zergatik ez.

Espainiarrok inoiz ez dugu etsi zailtasunen aurrean, handiak izan badira ere, eta beti izan gara garaile.

Eta jakin badakigu, gainera, aurrera egiten jarraitu behar dugula arestian aipatutako elkar ulertzeko gogoarekin eta batasunaren espirituarekin batera; elkarrizketa eta konpromisoarekin, betebeharraren ardurarekin eta erantzukizunarekin; gutako bakoitzak, egunero, herria handi egiten duen konpromiso etiko hori sentituz eta biziz; gure bihotzak batuz, duela hainbat hamarkada eskua luzatzea eta bizkarrik ez ematea erabaki zuelako Espainiako herriak, azkenean eta betiko. Lortu dugun guztiak eta, batez ere, lortuko dugun guztiak ematen digun indarrarekin eta konfiantzarekin egingo dugu, horrek harro sentiarazten gaitu eta.

Emozio hori eta gure etorkizunarengan —sinesten dudan Espainia horren etorkizunarengan— dugun konfiantza eskuan, Eguberri on, Feliz Navidad, Bon Nadal, Boas Festas eta 2016 urte zoriontsua opa nahi dizuet guztiei.